| ZUZENTASUNA | **2. Aurkezpena** | - Letra argiz idazten du, okertu gabe eta marjinak utziz.<br>- Testua paragrafotan egituratzen du. | | | 1 |
| | **3. Ortografia** | - Ortografia-falta bakoitza 0,2 deskontua. | | 1 | |
| | **4. Zuzentasun gramatikala** | - Ez du akats morfosintaktikorik egiten.<br>- Komunztadura eta arau gramatikalak ongi betetzen ditu.<br>- Perpaus aberatsak erabiltzen ditu. | | 0,5 | |
| EGOKITASUNA ETA KOHERENTZIA | **5. Egokitasuna (testu motarekiko)** | - Hiztegi- aberastasuna eta erregistroa.<br>- Gaia eta hartzailea. | | 0,5 | |
| | **6. Eskatutako baldintza I.** | - Hasierako eta bukaerako agurrak egin ditu.<br>- MO erakusketaren interesaz idatzi du. | | 0,5 | |
| | **7. Eskatutako baldintza II.** | - Bigarren proposamena zertan datzan azaldu du.<br>- Bigarren proposamenaren interesaz idatzi du. | | | 1 |
| | **8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia** | - Ideiak paragrafoka antolatzen ditu.<br>- Eskatutako testu motaren egitura errespetatzen du.<br>- Informazioaren garapena modu logikoan egiten du, kontraesanik eta alferrikako errepikapenik gabe. | | | 1 |
| KOHESIOA | **9. Lotura, erreferentea mantenduz** | - Testu antolatzaile eta lokailu egokiak erabiltzen ditu.<br>- Erreferentzia mekanismoak zuzen baliatzen ditu. | 0 | | |
| | **10.- Puntuazio-markak** | Puntuak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,2 penalizatzen du.<br>Komak edo puntu eta komak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,1 penalizatzen du. | | 1 | |
| | **OSOTARA** | | | **7,5 / 10** | |

**5. ADIBIDEA**

Kaixo Zuzendari jauna!

I T naiz, DBH 3.C-ko ikaslea eta aurtengo eskolaz kanpoko jarduerak proposatzeko idazten dizut.

Bi proposamenekin nator; Lehenik, MO erakusketara joatea ideia bikaina iruditzen zait. Alde batetik, bikain pasako dugulako. ~~G~~ Bestalde, Nafarroako liburutegian izango da, beraz ez dugu garraioarekin arazoak izango, gertu dugu eta. Gainera, egile bikain ~~eta~~ desberdinen lanak ezagutuko ditugu.

Bigarren proposamena, "Donostiako Eureka Zientzia museora" joatea da. Museo honetan oso bikain pasako genuke eta gauza bitxi eta zein interesgarri ugari ikusiko genituzke. Egia da, ~~~~ honetan, zailtasun bakarra garraioa izango litzatekeela. Baina, denboraren arazoa gero, ideia bikaina iruditzen zait!

Nire proposamenak kontuan izango dituzulakoan,

Mila esker ~~zuzendaria~~.

| MEZU BERRIA |
| --- |
| Hartzailea: zuzendaria@educacion.navarra.es |
| Gaia: Eskolaz kanpoko jarduerak |

Egun on zuzendari jauna!

M....... T ..   .   naiz, DBH 3.C-ko ikaslea eta aurtengo eskolaz kanpoko jarduerak proposatzeko idazten dizut.

Bi proposamen ditut eskuartean, lehenik, "MO" erakusketara joatea ideia bikaina iruditzen zait. Alde batetik, primeran pasako genukeelako eta bestetik, "Nafarroako Liburutegian" izango litzatekeelako. Beraz, ez genuke garraioarekin arazorik izango, merke izango genukeelako. Gainera, egile desberdin eta bitxien lanak ezagutuko genituzke.

Bigarren proposamena, "Donostiako Eureka Zientzia museora" joatea da. Museo honetan ere bikain pasako genukeelako eta gainera, gauza bitxi zein interesgarri ugari ikasiko genituzke. Egia da, honetan, zailtasun bakarra garraioa izango litzatekeela. Baina, denborarekin prestatzekotan, ideia bikain zein interesgarria iruditzen zait!

Nire proposamenak kontuan izango dituzulakoan,
Mila esker zuzendari.

| Atala | Irizpidea | 5. adibidea | Ez 0 | Partzialki 0.5 | Bai 1 |
|---|---|---|---|---|---|
| PLANGINTZA | **1. Zirriborroa** | - Ideiak antolatzeko prozeduraren bat erabiltzen du.<br>- Bi zatiak erabiltzen ditu.<br>- Behin betiko testuak zirriborroa hobetzen du. | | 0,5 | |
| ZUZENTASUNA | **2. Aurkezpena** | - Letra argiz idazten du, okertu gabe eta marjinak utziz.<br>- Testua paragrafotan egituratzen du. | | | 1 |
| | **3. Ortografia** | - Ortografia-falta bakoitza 0,2 deskontua. | | 1 | |
| | **4. Zuzentasun gramatikala** | - Ez du akats morfosintaktikorik egiten.<br>- Komunztadura eta arau gramatikalak ongi betetzen ditu.<br>- Perpaus aberatsak erabiltzen ditu. | | | 1 |
| EGOKITASUNA ETA KOHERENTZIA | **5. Egokitasuna (testu motarekiko)** | - Hiztegi- aberastasuna eta erregistroa.<br>- Gaia eta hartzailea. | | | 1 |
| | **6. Eskatutako baldintza I.** | - Hasierako eta bukaerako agurrak egin ditu.<br>- MO erakusketaren interesaz idatzi du. | | 1 | |
| | **7. Eskatutako baldintza II.** | - Bigarren proposamena zertan datzan azaldu du.<br>- Bigarren proposamenaren interesaz idatzi du. | | 1 | |
| | **8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia** | - Ideiak paragrafoka antolatzen ditu.<br>- Eskatutako testu motaren egitura errespetatzen du.<br>- Informazioaren garapena modu logikoan egiten du, kontraesanik eta alferrikako errepikapenik gabe. | | | 1 |
| KOHESIOA | **9. Lotura, erreferentea mantenduz** | - Testu antolatzaile eta lokailu egokiak erabiltzen ditu.<br>- Erreferentzia mekanismoak zuzen baliatzen ditu. | | | 1 |
| | **10.- Puntuazio-markak** | Puntuak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,2 penalizatzen du.<br>Komak edo puntu eta komak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,1 penalizatzen du. | | 0,6 | |
| **OSOTARA** | | | | **9,1 /10** | |

# III. IRAKURKETA PROZESUAK

## ITEMAREN ERANTZUNAREN MOTA ETA TESTU MOTAK

**Irakurketa prozesuak**: IZA, L. (2007) lanetik ateratako taula. *Irakurketa plana haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan.* Eskolako liburutegiak. Blitz, liburutegiko sagua. Nafarroako Gobernua. *Or.17-22.*
https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/elplandelecturaeusk.pdf/3e8109e9-b065-4975-98c8-7fc6b7cd92dc

| Irakurketa prozesuak | Definizioa |
|---|---|
| **Informazioa aurkitzea eta eskuratzea** (testuko zati jakinei erreparatzea) | Testuan bertan ageriko informazioa lokalizatzea, hitz berak Erabiliz edo sinonimoak erabiliz. |
| **Interpretatzea eta integratzea** (Testu barruko erlazioak ulertzea: testua osotara hartuta eta testuko zatien arteko erlazioa kontuan hartuta) | **Interpretatzea:** testua logikaz ulertzea. Honek informazioa erkatzea eta egiaztatzea, inferentziak egitea edo laguntza probak identifikatzea dakar. |
| | **Integratzea: ulermen orokorra:** testutik funtsezkoena ateratzea, testua bere osotasunean hartuta. (Ideien arteko hierarkia ezartzea; ideiarik orokorrena eta gehien gailentzen den ideia aukeratzea). |
| **Hausnartzea** (Testuaren kanpo-ezagutza erabiltzea) | **Edukiaren gaineko hausnarketa:** testuko baieztapenak ebaluatzea eta testuaz kanpotik dakigunarekin egiaztatzea, edukia kritikoki aztertu ahal izateko edo errealitate horren irudikapenaren iritzia izateko. |
| | **Formaren gaineko hausnarketa:** arlo morfosintaktikoan, lexiko-semantikoan eta testuzkoan, testuaren ezaugarri linguistikoak ebaluatzea. |

Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa ere kontsulta daiteke. Bigarren Hezkuntza. Or. **35-39 prozesu bakoitzean lan egiten duten eginkizunen adibideak eskaintzen dira:**
https://www.educacion.navarra.es/documents/57308/57722/Marcoteorico2.pdf/7e430de5-1b5b-485f-b26d-c7697ac29915

Idatzizko ekoizpena zuzendu eta ondoren lantzeko**, *Idatzizko testuak zuzentzeko orientabideak lana kontsultatzea gomendatzen da. Ebaluazio diagnostikoa. Bigarren Hezkuntza. Hezkuntzako Ikuskapen Koadernoak.* Nafarroako Gobernua. 2009.**
https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/competencia.pdf/b34fa63b-0072-42b8-8821-da44faa82021

- **Testuen sailkapena honako kontzeptu hauetan oinarritu da**: (2018ko PISA Irakurketarako Gaitasun Esparruan oinarritua)

  - Testu jarraiak edo testu etenak:
    - Jarraia: paragrafoetan antolatutako enuntziatuek osatzen dituztenak dira, puntuazio-arauak betetzen dituzte. Izenburuek eta edukiek, edo letra tamaina nahiz letra tipoaren formatu desberdinak erabiltzeak, testuaren antolaketa ezagutzen laguntzen dute. Testu-lokailuek informazio logiko garrantzitsua ematen dute.

    - Etena: beste modu batez antolatzen dira, beraz, bestelako irakurketa-ikuspegia eta irakurketa ez-linealeko estrategiak behar dituzte. Testua hainbat elementu grafikorekin nahasten dute eta informazioa hainbat modutan aurkezten dute. Testu etenaren adibideak: zerrendak, taulak, grafikoak, diagramak, iragarkiak, infografiak, programazioak, katalogoak, aurkibideak…
  - Testu motak: instrukzio, deskripzio, narrazio, azalpen, argudio eta transakzio-testua.
  - Testu-generoak.

- **Itemen sailkapena, eskatzen duten erantzun motaren arabera:** (Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalaren ebaluazioaren kontzeptu-esparruan oinarrituta)

  - Erantzun itxia: ikasleek eskainitako aukera bat baino gehiago hautatu behar dute, ideiak erlazionatu, baieztapen baten egiazkotasuna edo faltsutasuna ezarri, aukera jakin batzuk ordenatu eta abar.
  - Erantzun erdi-eraikia: lauki edo espazio bat edo batzuk hitz edo zifra batekin betetzea eskatzen dute, esaldi bat baino gehiago osatzea edo galderaren bati erantzun labur batekin erantzutea.
  - Erantzun irekikoa edo eraikia: ikasleek egitea eskatzen dute.

# IV. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

## 1. testua. ILUNTASUNA




Iluntasunik beldurgarrienak guztia suntsitu zuen. Gauzek jada ez zuten koloreriк: ez lurrak, ez urak, ez zeruak. Eta jendea ikaratuta bizi zen, Gaueko —gauaren iluntasunaren deabrua— zela eta.

Neskatxa ipurterre eta alai bat zegoen, Itzel izena zuena. Hamar urterekin, eta ilunpeetako mundu horren erdian, matxinadarako ordua zela sentitu zuen, eta une horretatik bertatik jakin zuen berriro ere gertaeren norabidea aldatzeko gai zela, edo, gutxienez, ezagutzen zuen munduarena.

Baina, hasi baino lehen, gainerako pertsonaiak aurkeztu nahi dizkizuet:

Gaueko itxuraldaketan ezin trebeagoa zen. Ia beti laino edo indar ikusezin bezala agertzen zen. Piztia bilakatzeko gaitasuna ere bazuen: ilaje beltz eta letagin handiko otso erraldoi, atzeko bi hanken gainean ibiltzen zen zezen beltz, edo pertsona bat airean eramateko gai zen gau-hontz gris izugarri.

Tirano horrek, gainerako tiranoen gisara, basapiztia krudelez osatutako legio bat zeukan bere aginduetara, eta herritarrak beldurtzea zen haien lana. Izaki izugarri horiek lurraldea kontrolatzen zuten; hori dela eta, biztanleak iluntasunean, isilik, gogorik gabe eta mesfidati bizi ziren.

Gauekoren jarraitzailerik leialena Tartalo zen, ziklopea. Bere begi bakarrarekin dena zelatatzen zuen erraldoia zen. Berak eraiki zuen denak itxita mantentzen zituen harresia, eta herrira sartzeko atetzarra zaintzen zuen.

Orain Inguma, ametsen arduraduna, nolakoa zen azalduko dizuet. 6 urteko haur baten tamaina zuen eta aurpegi luzanga eta zaharkitua. Kokots zorrotza zeukan, begi sartuak eta gorputz-adar guztiz argalak. Lo zeudenean, Ingumak bere sare ikusezinean bildu, armiarma-sare

batek bezala, eta amets bakar eta astun batean murgiltzen zituen. Horrela, askatasunarekin lotutako edozein ideiatatik urruntzen zituen; izan ere, amesgaizto horien bitartez iluntasunezko bizitza onartzera eta lehen irrikatzen zuten argiaren ideia errefusatzera bultzatzen zituen. Diotenez, gauero, umeen arnasa xurgatzen zuen, haien energiarekin elikatzeko.

Iratxoak ziren kopurutsuenak eta ñimiñoenak. Oso txikiak ziren, haurtxo baten neurrikoak, baina adineko baten begitartearekin. Belarri puntadunak zituzten, baita gorputz osoa ilaje fin, motz eta oparo batez estalia ere. Traketsak eta kaotikoak ziren, eta ez zituzten inoiz zalantzan jartzen Gauekoren aginduak. Toki guztietatik oharkabean igaro zitezkeen eta herriaren kanpoaldea zaintzen zuten. Pertsonaren bat ikusiz gero, adiskidetsu eta alai agertu, eta handik ihes egiteko laguntza eskaintzen zioten. Ondoren, infernu-leize batera eramaten zuten, edo hori zen, behintzat, Itzeli bere amonak, Loreak, kontatzen ziona. Argi zegoen gauza bakarra zen inork ez zuela izaten herrixkatik alde egiten zutenen berri gehiagorik.

Bestalde, bere zerbitzaririk beldurgarriena ere hor zegoen: Gizotso. Herriko gizon bat izan zela erraten zuten, Bernat izenekoa. Egun batean, askonahiak —edo agian beharrak — gainezka egin zion. Gauekok oparotasuna eta boterea eskaini zizkion mesede baten truke, eta etxetik alde egin zuen, akordioa betetzeko; halere, ez zuen lortu. Herrira umiliatua itzuli zen eta, zoritxarrez, erdi piztia erdi gizaki bilakatuta. Familiako inork ez zuen ezagutu, bere alabak izan ezik. Barruan hazten zihoakion otsoa kontrolatu ezinik, alabari betiko agur esan eta herritik urrundu zen. Haitzulo baten barruan bere burua katez lotu zuela diote, ingurukoei min ez ematearren, eta era errukarrian ulu egiten entzuten omen zitzaiola, urrunetik. Denbora pasatuta, ez zitzaion gizatasun izpirik gelditzen, eta orain otso handi bat zen, zutik, eta aspaldi lotuta eduki zuten kateak arrastaka zeramatzan. Denak Gauekoren esanetara jartzen aritzen zen, eta ihes egiten saiatzen zirenen edo arauak hausten zituztenen atzetik ibiltzen zen, nahiz eta bere ahaideak izan.

Beste izaki fantastiko batzuk ere baziren, iluntasunaren erreinu horri aurka eginez eskualdean zehar ezkutatu zirenak: urpean, lurpean, haitzuloen barruan, mendi, baso eta lurpeko igarobideetan, edo lurrazalean kamuflaturik eta geldirik, denbora luzez. Guzti-guztiak itzultzeko eta galdutakoa berreskuratu ahal izateko seinale baten zain zeuden.

Iturria: *Itzel*, Donald Navas Zeledón, Denonartean-Cenlit (2024) (moldatua)

1. **Zer sentitu zuen Itzelek?**

   A. Hamar urteko ilunpetik ateratzeko ordua zela.

   B. Hamar urteren buruan, ilunpetik ateratzeko zirela.

   C. Nahiz eta hamar urte izan, matxinada egiteko gauza zela.

   D. Nahiz eta hamar urte pasa, matxinada egingo zuela.

**2.** **Nori hitz egiten dio narratzaileak "aurkeztu nahi dizkizuet" esaten duenean?**

A. Igorleei.

B. Ikusleei.

C. Pertsonaiei.

D. Hartzaileei.

**3.** **Zer hiru piztitan bilakatzeko gaitasuna du Gauekok?**

**Otso erraldoi, zezen beltz eta gau-hontz gris izugarri**

**4.** **Zein hitz agertzen da testuan "beldurtu" aditzaren sinonimoa dena?**

A. Kontrolatu.

B. Ikaratu.

C. Izutu.

D. Dardaratu.

**5.** **Zergatik esaten du narratzaileak Tartalo "ziklope" bat dela?**

A. Begi bakarra duelako.

B. Dena zelatatzen duelako.

C. Harresia eraiki zuelako.

D. Atetzarra zaintzen duelako.

**6.** **Antonimo zuzenak aukeratu.**

A. Luzanga - zaharkitua

B. Zorrotza - argala

C. Bakar - astun

D. Onartu - errefusatu

**7.** **Zer esan nahi du "ñimiño" hitzak?**

**Oso txikia**

**8.** **Zergatik ez zuen inork izaten herrixkatik alde egiten zutenen berri gehiagorik?**

A. Iratxoek harrapatzen zituztelako.

B. Iratxoen lagun egiten zirelako.

C. Iratxoekin ihes egiten zutelako.

D. Iratxoen bila ibiltzen zirelako.

**9.** **Gizotsoren bilakaera: zein da ordena zuzena?**

A. Gauekoren esanak bete, etxetik alde egin, bere burua lotu, herrira itzuli.
B. Gauekoren esanak bete, herrira itzuli, etxetik alde egin, bere burua lotu.
C. Etxetik alde egin, herrira itzuli, bere burua lotu, Gauekoren esanak bete.
D. Etxetik alde egin, bere burua lotu, herrira itzuli, Gauekoren esanak bete.

**10.** **Testuan irakurri dituzun pertsonaien artean, zein ez da irudian agertzen?**

**Itzel**

**11.** **Ondoko taulan testuan agertu diren hainbat pertsonaia eta hainbat ezaugarri daude:**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Tartalo | Tiranoa | Ñimiñoak | Arnasa |
| Deabrua | Iratxoak | Inguma | Aitatasuna |
| Askonahia | Ziklopea | Gaueko | Amesgaiztoa |
| Traketsak | Leiala | Gizotso | |

**Lotu pertsonaiak eta ezaugarriak (erabili taula hau):**

| PERTSONAIA | EZAUGARRIAK | |
|---|---|---|
| Tartalo | Leiala | Ziklopea |
| Inguma | Amesgaiztoa | Arnasa |
| Iratxoak | Ñimiñoak | Traketsak |
| Gizotso | Askonahia | Aitatasuna |
| Gaueko | Deabrua | Tiranoa |

## 2. testua. GASTRONOMIA

Jarraian irakurriko duzun lehendabiziko testua BERRIA-n argitaratu zen baten transkripzioa da; beste biak (hurrengo orrialdean daude), lehendabizikoarekin lotuta daude, eta internet bidez eskuratu diren bi hiztegi entziklopedikoren sarrerak dira.





ERREZETA

# Ajoarrieroz beteriko krepeak



Iker Markinez

**OSAGAIAK**

**Lau lagunentzat**

Krepeak egiteko osagaiak:
- 6 arrautza
- 200 g irin
- 75 g gurin
- Baserriko esnea, litro erdi
- Gatza

Ajoarrieroa egiteko osagaiak:
- 300 g bakailao gezatu
- Tipula bat
- Piper gorri bat
- Piper berde bat
- Baratxuria, lau ale
- Kaiena piperra
- Tomate saltsa, koilarakada handi bat
- Piper txorizeroa, mami koilarakada bat

**1**. Osagai hauek ontzi batean nahastuko ditugu krepeak egiteko: arrautzak, osorik, eta 200 gramo irin. Ondoren, dena ondo irabiatu, eta gehitu gatz pitin bat. Gehitu esnea ere, eta nahastu. Bota 75 gramo gurin zartagin ertain batera, eta, urtzean, nahastu dena aurreko ontzian.

**2**. Zartagin bat berotzen jarri, eta, bero dagoenean, bota kazokada bat krepe masa; zartagina alde batetik bestera suabe-suabe mugituz, zabaldu masa zartagin guztira. Segundo gutxiren buruan, buelta eman, eta, segidan, atera plater batera. Gainontzeko masarekin gauza bera egin, krepe guztiak egin arte. Egin ahala, jarri plater batean, bata bestearen gainean. Nahi izanez gero, krepeak bezperan eginda utz ditzakezu.

**3**. Ajoarrieroa egiteko, bota dezenteko txorrotada bat oliba olio lapiko batean, eta bakailaoa gezatu takoa konfitatzen jarri, su oso motelean eta 15 minutuz. Hozten utzi gero, eta, ondoren, atera bakailaoa.

**4**. Garbitu barazki guztiak, eta laukitxoan moztu. Jarri zartagin zabal batean, bota gatz pitin bat, eta gehitu bakailaoa konfitatzeko erabili dugun olioa, erregosteko. Horrela, barazkiek bakailao zapore handiagoa izango dute, eta platerrari indarra eman. Erregosi barazkiak ordu erdi batez, ondo poxatzeko, taparik gabe. Su ertaina erabili. Ondoren, gehitu koilarakada bat piper txorizero, mami eta tomate saltsa barazkiei. Eduki beste bost minutuz saltsan.

**5**. Kendu azala hoztua dugun bakailaoari, eta bakailao ezpalak aterako ditugu eskuaz. Bakailaoa modu horretan xehatzea da ajoarrieroaren berezitasun nagusietakoa. Ez da komeni, ordea, bakailaoa erabat xehatzea. Ezpal horiek gehitu barazkiak ditugun zartaginean. Ondo nahastu dena, eta atera erretilu batera.

**6**. Orain, krepe guztiak beteko ditugu. Prestatu dugun ajoarriero koilarakada pare batez bete krepe bakoitza, eta tolestu. Jarri krepe guztiak labeko erretiluan, eta, jan baino lehentxeago, berotu labean bost bat minutuz. Ondoren, mahaira zerbitzatu. Nahi baduzue, etxeko tomate saltsa edo piper gorri saltsa batez busti ditzakegu krepeak. Ea guztatzen zaizuen. On egin!

## Krepe

iz. Esnez, arrautzaz, irinez eta azukrez eginiko orea, zartagin edo plantxa baten gainean erretzen dena.

Iturria: **Harluxet hiztegi entziklopedikoa**

## Bakailao

**1. Zool.**

Gadidoen familiako arrain osteiktiea, Ipar Atlantikoko itsaso hotzetan bizi dena. 2 m-rainoko gorputz luzexka eta buru luze eta sendoa du. Kolore desberdinekoa da eta bizkarrean hiru hegats ditu. Bere haragia oso preziatua da.

la *Gadus morhua*

en *Atlantic cod, cod*

es *bacalao*

fr *cabillaud, morue*

Iturria: **ZTH zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa**

**12. Zeri buruz hitz egiten dute hiru testuek?**

**Gastronomiari / elikagaiei buruz**

**13. Zer testu mota dira?**

A. Bi errezeta eta definizio bat.
B. Errezeta bat eta bi definizio.
C. Albiste bat, errezeta bat eta definizio bat.
D. Errezeta bat, definizio bat eta iruzkin bat.

**14. Non ikus daiteke “Ajoarrieroz beteriko krepeak” testua?**

A. Martinezen liburu batean.
B. Chef ospetsua aldizkarian.
C. Entziklopedia batean.
D. Egunkari batean.

**15. Zein da egia?**

A. Gatza eta oliba olioa behar dira ajoarrieroa egiteko.
B. Krepeak 15 minutuz berotu behar dira labean.
C. Bakailaoa ongi xehatu behar da azala kendu ahal izateko.
D. Krepeak bete ondoren, barazkiak erregosi behar dira.

**16. “Krepe” sarreran, zer esan nahi du “iz.” laburdurak?**

**Izena**

**17. Zergatik daude azpimarraturik zartagin eta plantxa hitzak?**

A. Biak sukaldeko tresnak direlako.
B. Nabarmendu nahi den informazio oso garrantzitsua delako.
C. Jatorrizko testuan link bat delako eta bertan klikatu dezakegulako.
D. Horrela formatu egokiagoa ematen zaiolako testuari.

**18. Zenbat hizkuntzaren laburdurak agertzen dira “bakailao” testuan?**

A. Bat.
B. Bi.
C. Hiru.
D. Lau.

## 3. testua. MO ERAKUSKETA

Jarraian irakurriko duzun testua MO erakusketari buruzko diptikoaren transkripzioa da:



JUAN SUÁREZ 1988ko azaroan jaio zen Bogotan. Komikigintzan eta tatuajegintzan aritu da, bi diziplina horietara eramanez Kolonbiako Unibertsitate Nazionalean Arte Plastikoak ikasi bitartean jasotako ezagutzak. Kolonbiako *Gorgona, Dr. Fausto* eta *Ficciorama* aldizkarietan argitaratu ditu ilustrazio eta komiki-lanak. Bere lehen eleberri grafikoa da hau.

PELLO VARELA Gasteizen jaio zen 1960an. Ikus-entzunekoen munduan, *Coja usted el siguiente* film laburrarekin (1986) egin zituen lehen urratsak, eta bai Donostiako Zinemaldian eta beste jaialdi batzuetan parte hartu ere. Kritikari gisa ere aritu da, eta jardunaldiak, tailerrak eta jaialdiak antolatu ditu.








MOren bizitza jasotzen duen Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* liburua 1991n argitaratu zen, eta milaka irakurle izan ditu harrezkero euskaraz eta beste hizkuntza askotan; alemana, frantsesa, esperantoa, ukrainera edo farsia, besteak beste.

MO ez da, beraz, ezezagun bat. Baina oraingoan eleberri grafiko moduan datoz haren memoriak. Pello Varela gidoilariak eta Juan Suárez marrazkilariak distira berezi bat eman diete pertsonaiei eta lekuei.

Erakusketa honetan eleberri grafikoaren irudi sorta bat aurkezten da, Atxagaren liburuko testuekin batera. MOren, batere ergela ez den behi baten, bizitzan barrena bidaiatzera gonbidatzen zaituztegu.



MOk ez du behi makal bat izan nahi. Ulertu egin nahi du bere mundua, Balantzategi baserrian eta haren inguruan gertatzen ari dena. Zergatik dago basoa begiz beteta? Nor da Karral? 1936ko gerra ez al zen, bada, bukatu? Bere barruko ahots zuhurrak galderak alde batera uzteko eskatzen dio, bizitzeko lasai, baina berak nahiago du La Vache betizuari segitu eta, arriskuak arrisku, nor izan.



KARRIKIRI
Pamiela etxea
BNL BIBLIOTECA DE NAVARRA NAFARROAKO LIBURUTEGIA
Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua



**19. Nor da MO?**

A. Egilea.
B. Ilustratzailea.
C. Behia.
D. Idazlea.

**20. Zein da “eleberri grafiko” hitzaren sinonimoa?**

A. Komikia.
B. Nobela.
C. Ipuina.
D. Memoria.

**21. Non ikus daiteke erakusketa?**

A. Karrikirin.
B. Iruñeko udaletxean.
C. Nafarroako Gobernuan.
D. Nafarroako Liburutegian.

**22. Taula honetan hamabost datu daude, erakusketako diptikoan agertzen direnak, eta zuk lotu behar dituzu <u>hiru multzotan</u> (bakoitzean bost datu). Erabili beheko taula datuak lotzeko.**

| | | |
|---|---|---|
| Bogota | Ikus-entzunezkoak | Bernardo Atxaga |
| gidoilaria | *Behi euskaldun baten memoriak* | marrazkilaria |
| 1991 | Arte Plastikoak | Gasteiz |
| idazlea | Pello Varela | 1960 |
| Juan Suárez | 1988 | hizkuntzak |

| 1. multzoa | 2. multzoa | 3. multzoa |
|---|---|---|
| Juan Suárez | Pello Varela | Bernardo Atxaga |
| Bogotá | Gasteiz | Behi euskaldun baten memoriak |
| 1988 | 1960 | 1991 |
| Arte Plastikoak | Ikus-entzunezkoak | Hizkuntzak |
| Marrazkilaria | Gidoilaria | idazlea |

**23.** **Zer ikus dezakegu erakusketan?**

A. Atxagaren irudiak eta testuak.

B. Atxagaren irudiak eta Varelaren testuak.

C. Suárezen irudiak eta Atxagaren testuak.

D. Varelaren irudiak eta Suárezen testuak.

**24.** **Zein da testu honen helburua?**

A. Erakusketa baten berri ematea.

B. Erakusketaz hitz egitea.

C. Erakusketaren egileak ezagutaraztea.

D. Erakusketaren irudiak saltzea.

**25.** **Zein da egia?**

A. Varela Suárez baino zaharragoa da.

B. MO 1991n jaio zen.

C. MO alemaniarra da.

D. Suárez eta Varela herri berekoak dira.

# EKOIZPEN IDATZIA

**26. Ekoizpen idatzia.**

Aurten, institutuan, ikasleoi eskatu dizuete eskolaz kanpoko bi jarduera proposatzeko. MO erakusketaren berri izan duzunez, bi proposamenetako bat zure mailako ikaskideekin erakusketa ikustera joatea izango da.

Idatzi institutuko zuzendariari posta elektronikoa bat (zuzendaria@educacion.navarra.es) bi proposamenak azaltzeko, zertan dautzan eta zergatik uste duzun ideia onak direla. Idatzi, gutxi gorabehera, 120 hitz (12 lerro).

Honako puntu hauei buruz idatzi behar duzu:

- Hasierako agur, aurkezpen eta bukaerako agur egokiak. Gaia eta hartzailea ere aipatu behar.
- MO erakusketara bisita egiteko proposamena egitea:
  - Azaldu zergatik uste duzun jarduera egokia eta interesgarria dela.
- Asmatu bigarren proposamena:
  - Azaldu zertan datzan.
  - Arrazoitu zergatik den egokia.

Kontuan hartu nola sortu behar duzun testua:

1. Prestatu zirriborroa.
2. Idatzi behin betiko testua.